



## HEZKUNTZA ZERBITZUAK KUDEATUTAKO PROGRAMEN KONTURAKO ZENBAIT DIRULAGUNTZA ARAUTZEN DITUEN ARAUDIA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

**Onartuta:** Udalbatzak 2010/12/20an

**Argitaratuta:** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2011/02/25ean (Indarrean 2011/03/22)

### AURKIBIDEA:

Zioak azaltzea.....	2
1. kapitulua. Xedapen orokorrak .....	2
2. kapitulua. Eskatzaileak .....	2
3. kapitulua. Prozedura .....	3
4. kapitulua. Dirulaguntzak banatzeko irizpideak.....	4
5. kapitulua. Onuradunen betebeharrak.....	5
6. kapitulua. Justifikazioa eta kobrantza.....	6
7. kapitulua. Arau-haustea eta zigorrak.....	6
8. kapitulua. Dirulaguntzak aldatzea eta ezeztatzea .....	7
Lehen xedapen gehigarria. ....	7
Bigarren xedapen gehigarria.....	7
Hirugarren xedapen gehigarria .....	7
Azken xedapena .....	7

# HEZKUNTZA ZERBITZUAK KUDEATUTAKO PROGRAMEN KONTURAKO ZENBAIT DIRULAGUNTZA ARAUTZEN DITUEN ARAUDIA

## ZIOAK AZALTZEA

1.- Bergarako Udalak, bertako haur eta gazteen heziketan lagungarri izan dadin, herriko ikastetxeen jardueran lagundu eta izaera hezitzailea duten ekintzak sustatzeko borondatea du.

2.- Helburu hau gauzatu ahal izateko, Udalaren diru baliabideek ahalbidetzen duten neurrian dirulaguntzak emateko irizpideak eta horiek arautzen dituen Araudi hau prestatu du.

## L. KAPITULUA.XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua

Araudi honen helburua da Udaleko Gazteria eta Hezkuntza Zerbitzuak kudeatutako eta Bergarako ikastetxeei zuzendutako dirulaguntzak arautzea.

### 2. artikulua.-

Ondorengo jarduerak diruz laguntzea da araudi honen helburua:

- 1) Ikastetxeek egindako hezkuntza, euskara, kultura, kirol eta gizarte izaerako jarduerak, Udalari aurkeztu eta Udalak gizarte ikuspegitik interesgarritzat jotzen baditu (ikus 12. artikulua).
- 2) Azpiegiturak, ondasun higigarri edo higiezinak edo izaera amortizagarria duten inbertsioak, baldin eta 12. artikuluan adierazten diren puntuekin erlazionatuta badaude.

### 3. artikulua.-

Dirulaguntzak borondatezko eta behin-behineko izaera du, eta aurrerantzean ezin izango da aurrekaritzat hartu.

### 4. artikulua.-

Udalak emandako dirulaguntza bateragarria da helburu berarengatik jasotako beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edota errekurtsorekin.

Hala ere, dirulaguntza ezin izango da izan, beste dirulaguntza edota diru-sarrera batzuekin batera zein ez, lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

## 2. KAPITULUA.ESKATZAILEAK

### 5.- artikulua.-

Ondorengoek eskatu ahal izango dituzte dirulaguntzak: Udalerrian helbideratuta egon eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako zikloak eskaintzen dituzten ikastetxeek.

---

## BERGARAKO UDALA

Hezkuntza zerbitzuak kudeatutako programen konturako zenbait dirulaguntza arautzen dituen araudia

### 3. KAPITULUA.PROZEDURA

#### 6. artikulua.-

Urteroko aurrekontuan Udalak ikastetxeen artean dirulaguntza moduan banatuko den gehienezko diru kopurua zehaztuko du.

#### 7. artikulua.-

Ikastetxeek euren jardueretarako dirulaguntzak eskatzeko epea otsailaren 1ean hasiko da eta martxoaren 1ean bukatu.

Dirulaguntza ikasturte horretan burututako edo burutuko dituzten jarduera eta inbertsioetarako izango da, hau da, eskaera aurkeztu den aurreko urteko irailean hasi den ikasturtean burututako jardueretarako.

Eskaerak zein dokumentazioa Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira.

#### 8. artikulua.-

Eskaerarekin batera ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira:

a) IFKren kopia

b) Gizarte Segurantzaren eta Foru Ogasunarekiko ordainketetan egunean dagoela ziurtatzen duten agiriak (ikastetxe publikoen kasuan dokumentazio hau ez da beharrezkoa izango). Eskatzen den dirulaguntza 3.000 euro baino txikiagoa denean, dokumentu horien ordezkari zinpeko aitorpen bat aurkeztu ahal izango da.

d) Beste erakunde eta organismo batzuei egindako dirulaguntza eskaeren zein jadanik jasotako dirulaguntzen eta jarduera edo programa burutzeko lorturiko beste diru-sarreraren gaineko zinpeko aitorpena.

e) Azaroak 17ko 38/2003 Legeak 13. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan adierazitako dirulaguntzak jasotzeko debeku-egoeretako batean ez dagoela dioen zinpeko aitorpena.

g) Ikastetxean ikasturte horren hasieran matrikulatutako ikasle kopuruaren gaineko zinpeko aitorpena.

h) Gainera, honako dokumentazioa ere aurkeztu beharko da:

- Diruz laguntzea nahi den proiektuaren / inbertsioaren deskribapena (helburuak, hartzaile kopurua, noiz eta nola egingo den...)

- Diru-sarrera eta gastuen aurrekontu desglosatua. Hor azaldu beharko dira dirulaguntzez gain programa / inbertsioa aurrera eramateagatik lortutako berezko diru-sarrerak desglosatuta.

Eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileak araudi honetan ezarritakoa bere horretan onartzen duela.

#### 9. artikulua.-

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, eskaerak Udaleko Gazteria eta Hezkuntza Batzorde Informatzaileak aztertuko ditu, eta agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea emango da hura aurkezteko.

Epea bukatu eta agiririk aurkeztu ez bada, atzera egin duela ulertuko da eta eskaera automatikoki artxibatuta geratuko da.

Azkenik, Departamentuak txosten teknikoa egin ondoren, Gazteria eta Hezkuntzako Batzorde Informatzaileak dirulaguntzak emateko proposamena egingo dio Alkateari erabakia har dezan.

Erabakian zehaztu egingo da dirulaguntza zein jardueratarako ematen den eta zenbatekoa den.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gehienez lau hilabeteko epean hartuko da erabakia.

Epe hori igaro ondoren, Udalak eskaeraren baten gainean erabakirik hartu ez badu, eskaera ez dela onartu ulertu beharko da.

Udalak, Batzorde Informatiboaren bitartez, beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du erabaki-proposamena formulatu aurretik.

Udalak hartutako erabakia, interesatuei jakinarazteaz gain, Udaleko Iragarki Taulan argitaratuko da.

## 4. KAPITULUA. DIRULAGUNTZAK BANATZEKO IRIZPIDEAK

#### 10. artikulua.-

- a) Gehienezko dirulaguntza: Ikastetxeak duen ikasle kopuruaren arabera ezarriko da gehienezko dirulaguntza. Zenbateko hori kalkulatzeko, Udalak kontzeptu honetarako ezarritako diru partidaren kopurua hartu eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa eskaintzen duten ikastetxeetan guztira dauden ikasle kopuruarengatik zatituko da. Horrela, ikastetxe bakoitzak, dituen ikasleen arabera, gehienez jaso dezakeen dirulaguntza finkatuko da.
- b) Jarduera eta inbertsioetarako dirulaguntza: Gazteria eta Hezkuntza Batzordeak aztertuko ditu aurkeztutako eskaerak eta proposamena egingo dio Alkateari. Dirulaguntza onartutako proiektuen edo inbertsioen %75 izango da, beti ere gehienezko dirulaguntzaren zenbatekoa gainditu gabe.

#### 11. artikulua.-

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

- Dirulaguntzaren % 60 erabakia hartutakoan, edota, 3.000 eurotik gorakoa bada, hitzarmena sinatutakoan.
- Beste % 40a, araudi honetako 17. artikuluan jasotako dokumentazioa aurkeztu eta Udalak ontzat emandakoan.

#### 12. artikulua.-

Aurkeztutako proiektu eta jarduerak arlo hauen ingurukoak izan beharko dira:

- Euskararen normalizazioa bultzatzeko aurkeztutakoak.
- Eleaniztasuna bultzatzeko proiektuak.
- Ingurugiroarekiko sentsibilizazioa eta zainketa bultzatzen dutenak.
- Genero ikuspegia lantzerantz zuzenduta daudenak.

---

### BERGARAKO UDALA

Hezkuntza zerbitzuak kudeatutako programen konturako zenbait dirulaguntza arautzen dituen araudia

- Kultura suspertzeko ekitaldiak: kultur asteak, abesbatzak, bertso eskolak, idazleen aurkezpenak...
- Prebentzio arloarekin lotutakoak: drogak, sexua, ohitura osasungarriak...
- Kirola egitea bultzatzen dutenak.
- Irakasleen etengabeko prestakuntzarekin lotutakoak.
- Ikasleen etengabeko prestakuntza eta lan munduratzearekin erlazioatutakoak.
- Teknologia berrien sustapenarekin lotutakoak.
- Kulturartekotasuna bultzatzen dutenak.
- Jakintza arlo espezifikoaren inguruko talde lanak bultzatzea.
- Elkarbizitza zaintzera zuzendutako programa eta jarduerak.
- Eskola baratzak.
- Euskal curriculum-a lantzeko jarduerak.
- Ikasleen batzorde eta lan taldeak bultzatzea zuzendutako ekintzak.
- Kalitatearekin lotutako jarduerak.
- Ikasleek eskolan erabiliko duten materiala eskuratzea: aldizkariak, liburuak, CDak, DVDak...

Hemen zerrendatuta ez dauden gaien buruzko proiektuak ere aurkeztu ahal izango dira eta Alkatea izango da Gazteria eta Hezkuntza Batzordeak egindako proposamena ikusi ondoren, proiektu horiek diruz lagundu ala ez erabakiko duena.

## 5. KAPITULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

### 13. artikulua.-

Onuradunaren betebeharrak dira:

- a) Dirulaguntzaren arrazoi diren jarduerak egin edo/eta helburuak betetzea.
- b) Dirulaguntzaren emakida edo erabilpenerako baldintzak, jarduerak eta helburuak bete direla Bergarako Udalaren aurrean justifikatzea.
- c) Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketak onartzea.
- d) Bergarako Udalarari berak lagundutako jarduera berberengatik jasotako beste dirulaguntzen berri ematea.  
  
Horren berri jakin bezain laster egin beharko da komunikazio hau eta, edozein kasutan, Udaletik jasotako fondoaren erabilera justifikatu aurretik.
- e) Udalarekin hitzarmena sinatu. 3.000 eurotik gorako dirulaguntza jasotzen badu.  
  
Hitzarmena emandako dirulaguntzaren jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean sinatu beharko da.  
  
Hilabeteko epe hori igarota dirulaguntzaren onuradunari lepora dakioken arrazoiren bategatik hitzarmena sinatuko ez balitz, ikastetxeak dirulaguntzari uko egiten diola ulertuko da.
- f) 17. artikuluan jasotako dokumentazioa bertan zehaztutako epean aurkeztea.
- g) Jasotako fondoaren erabilerari buruzko egiaztapenak gutxienez lau urtez gordetzea.
- h) Udalarari egiaztatze-lanak ez oztopatzea.
- i) Dirulaguntza itzultzea Araudi honetan zehaztutako kasuetan.

### 14. artikulua.-

Diruz lagundutako ekintzak dirulaguntza arrazoituen duen ikasturtean burutu beharko dira.

#### BERGARAKO UDALA

Hezkuntza zerbitzuak kudeatutako programen konturako zenbait dirulaguntza arautzen dituen araudia

15. artikulua.-

Ez da onartuko dirulaguntzen helburuak aldatzea.

16. artikulua.-

Araudi honetan jasotako betebeharrak ez betetzeak dirulaguntza kentzea ekar lezake.

## **6. KAPITULUA. JUSTIFIKAZIOA ETA KOBRANTZA**

17. artikulua.-

Araudi honek dioenaren arabera dirulaguntza jaso ahal izateko ezinbestekoa izango da jarduera gauzatu izatea eta honako dokumentazioa aurkeztea irailaren 28a baino lehen:

- 1) Diruz lagundutako jarduerari buruzko txostena (memoria).
- 2) Diruz lagundutako jardueraren diru sarrera eta gastuen balantzea eta jarduera bererako beste Administrazio edo erakunde pribatu zein publiko batzuek edo gurasoek emandako dirulaguntzak.
- 3) Jarduerak sortutako dokumentazio, foileto eta abarren ale bana aurkeztu beharko da.
- 4) Inbertsioen kasuan, egindako inbertsioaren deskribapen zehatza.

18. artikulua.-

Aurkeztu beharreko fakturei dagokienez:

Jatorrizko fakturen fotokopiak izango dira.

Dirulaguntza emango den ikasturteko data izan behar dute guztiek.

Jasotzailearen Nortasun Agiria edo Identifikazio Fiskaleko Kodea (IFK) agertu behar da.

19. artikulua.-

Bergarako Udalaren Gazteria eta Hezkuntza batzordeak diruz lagundutako jardueren jarraipena egingo du. Alde horretatik, edozein unetan eska ditzake behar dituen azalpenak edota dokumentazioa.

## **7. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

20. artikulua.-

Arau-haustek eta zigorrak azaroaren 17 38/2003 Legean jasotakoak izango dira.

Zigorra ezartzen bada, emandako dirulaguntza itzultzea ere eskatu ahal izango da.

## **8. KAPITULUA. DIRULAGUNTZAK ALDATZEA ETA EZEZTATZEA**

### 21. artikulua.-

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketek, eta, edozein kasutan, beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik konkurrentzian jasotako laguntzek, emakidaren erabakia aldatzea ekar dezakete.

### 22. artikulua.-

Dirulaguntza berrikusteko eta, hala egokituz gero, ezeztatu eta jasotako dirulaguntza itzultzeko arrazoï izango dira:

Dirulaguntza beharrezko baldintzak bete gabe jaso izana.

Dirulaguntzaren helburua, osotasunean edo partzialki, ez betetzea.

Dirulaguntzari eman zaion erabilera zuritzeko derrigortasuna ez betetzea edo behar den bezala ez betetzea.

Zabalpen-neurriak hartzeko derrigortasuna ez betetzea.

Finantzen kontrol eta frogatze jarduerak oztopatzea, ezetza ematea, desenkusatzeta edo erresistentzia jartzea; agiriak kontserbatzeko eta kontabilitate eta erregistratze aldetik dituzten betebeharrak ez betetzea; horien ondorioz emandako dirulaguntza zertan erabili den ziurtatzea oztopatzen bada, helburua betetzen ez bada edo helburu berarentzako bestelako diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabideak baldin badaude.

Araudi honetan dirulaguntzaren onuradunei ezarritako betebeharrak ez betetzea.

### 23. artikulua.-

Itzuli beharreko diruak eskubide publikoko izaera izango du, eta diru hori kobratzeko premiamenduzko prozedura erabiliko da.

## **LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA.**

Araudi honek indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetu arte.

## **BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

Araudi honen interpretazio eta garapenean sor daitezkeen zalantzak Alkateak erabakiko ditu.

## **HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

Araudi honetan espresuki zehaztuta ez dagoenean, une bakoitzean indarrean dagoen dirulaguntzei buruzko legedia aplikatuko da; une honetan azaroaren 17ko 38/2003 legea eta berau garatzen duten gainontzeko araudiak.

## **AZKEN XEDAPENA**

Araudi hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeï egunetara.